

**INGURUMENA BABESTEARI ETA JARDUERA KALTEGABEEI DAGOKIENEZ BAIMENAK EMAN ETA
KONTROL-JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK
ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

10. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea zenbait zerbitzu tekniko eta administratibo ematea da, Ingurumena Babesteko Eskuhartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen arabera jarduera sailkatuetarako udal-lizentzia behar duten instalazio eta jarduerak ezarri, ustiatu, lekualdatu, funtsean aldatu, berriro ireki eta abiarazteari lotutakoak, bai eta udal-lizentziari dagozkionak ere –jarduera kaltegabeen kasuan– eta kontrol jarduera administratiboak egiteari buruzkoak –lizentzia emantzat jotzen den kasuetan, edo aurretiatzko komunikazioaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren aurkezpenak hura ordezkatzeko duenetan,–, eta zehazkiago honako hauetan:

- a) Jarduera-lizentzia.
- b) Irekitzeko lizentzia.
- c) Irekitzeko lizentziaren aldaketa.
- d) Instalazioak eta lokalak berriro irekitzeko baimena.

e) Jarduera abiarazi edo establezimendua ireki eta geroko kontrola, lizentzia emantzat jotzen den kasuetan, edo aurretiatzko komunikazioaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren aurkezpenak hura ordezkatzeko duenetan.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Tasa lizentzia eskatzean edo aurretiatzko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztean sortuko da. Interesdunak lizentzia emateko udal-erabakia hartu baino lehen eskariari uko egiten badio, ez du hura ordaindu beharko. Halaber, ez da ordaindu beharko, baldin eta jarduera bat abiarazteari uko egin zaiola jakinarazten bada jardueraren geroko kontrol-jarduketari amaiera ematen dion udal-ebazpena eman baino lehen.

Subjektu pasiboa

4. artikulua.- Ordenantza honetan ezarritako tasak pertsona fisiko eta juridikoek eta nortasun juridikorik izan gabe batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten entitateek ordaindu behar dituzte, baldin eta beren izenean lizentzia eman, aldatu edo berraztertu bada edo aurretiatzko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu.

Tarifak

5. artikulua.- Aplikatuko diren tarifak Ordenantza honen Eranskinean jaso dira.

Kudeaketa-arauak

6. artikulua.- Jarduera bat baimentzeko edo abiarazteko interesa duten pertsonak behar den lizentzia-eskaera, aurretiatzko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko diote Udalari, lokalean egin beharreko jarduera edo jarduerak eta haren kokapena zehaztuko dituztelarik, dagozkien udal-ordenantzetan eskatutako agiriekin batera.

7. artikulua.- 1) Ordenantza honetan ezarritako tasak autolikidazio-araubidearen pean galdatuko dira lizentzia emantzat jotzen den kasuetan, edo aurretiatzko komunikazioaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren aurkezpenak hura ordezkatzeko duenetan. Gainerako kasuetan, tributu-administrazioak dagokien behin-behineko likidazioa eginen du.

2) Autolikidazio-araubidea aplikagarria den kasuetan, subjektu pasiboek derrigorrezko izanzen dute autolikidazioa egitea kasuan kasuko tasak direla medio, Udal Administrazioak emanen dien inprimaketan. Betebehar hori ez betetzea tributu-arloko arau-hauste zehagarria da, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalaren IV. kapituluan xedatutakoarekin bat.

3) Komunikazio edo adierazpenarekin batera, autolikidazio-agiria –behar bezala beterik– eta jarduera abiarazi edo establezimendua ireki eta geroko kontrolerako tasak ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dira, edo, bestela, ordainketa-epea luzatzeko eskabidea –behar bezala erregistraturik–, lizentzia emantzat jotzen den kasuetan, edo aldeztu aurreko jakinarazpenaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren aurkezpenak ordezkatzeko duenetan.

8. artikulua.- 1) Udal Administrazioak egiaztatuko du autolikidazioak Ordenantza honetako arauak zuzen aplikaturik egin direla, eta, horrenbestez, kalkulaturako tarifa arau horien emaitza dela.

2) Baldin eta Udal Administrazioa autolikidazioekin ados ez badago, likidazioak eginen ditu gaizki aplikatutako kontzeptuak edo datuak eta errakuntza aritmetikoak zuzenduta, berandutze-interesak kalkulatuak ditu eta, behar izatera, behar diren zehapenak ezarriko. Halaber, likidazioa ere eginen du, subjektu pasiboak deklaratu gabe utzitako zerga-egitateen gainean.

9. artikulua.- Lizentzia iraungiz gero, interesdunek, jarduerari eutsi nahi izatera, lizentzia berria eskatu beharko dute, eta dagokien tasa ordaindu.

Arau-haustek

10. artikulua.- Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalean ezarritakoari eginen zaio men.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- JARDUERA-LIZENTZIA, JARDUERA-LIZENTZIAREN FUNTSEZKO ALDAKETA ETA BERRAZTERKETA, GEROKO KONTROLA 448/2014 FORU AGINDUAREN II. ERANSKINEAN JASOTAKO JARDUEREN KASUAN:	
- 50 m ² bitarteko lokalak edo instalazioak	1.168,00 euro
- 50 m ² -tik gorakoak 100 m ² -ra bitarte	1.318,00 euro
- 100 m ² -tik gorakoak 250 m ² -ra bitarte	1.467,00 euro
- 250 m ² -tik gorakoak 500 m ² -ra bitarte	1.691,00 euro
- 500 m ² -tik gorakoak 1.000 m ² -ra bitarte	2.021,00 euro
- 1.000 m ² -tik gorakoak	2.446,00 euro
Gutxieneko tarifa aplikatuko da, baldin eta azalera jakin bati loturik ez dauden instalazioak paratu, aldatu edo ezabatzeak eragiten badu jarduera sailkatuaren aldaketa edota instalazio horiek neurri zuzentzaile guztiak berraztertzea ekarri ezean.	
II. EPIGRAFEA.- IREKITZEKO LIZENTZIA, IREKITZEKO LIZENTZIAREN ALDAKETA ETA ESTABLEZIMENDUA IREKI ETA GEROKO KONTROLA, LIZENTZIA EMANTZAT JOTZEN DEN KASUETAN, EDO ALDEZ AURREKO JAKINARAZPENAREN EDO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN AURKEZPENAK ORDEZKATZEN DUENETAN	
Jarduera sailkatuen irekiera:	
- 50 m ² bitarteko lokalak edo instalazioak	637,00 euro
- 50 m ² -tik gorakoak 100 m ² -ra bitarte	711,00 euro
- 100 m ² -tik gorakoak 250 m ² -ra bitarte	791,00 euro
- 250 m ² -tik gorakoak 500 m ² -ra bitarte	914,00 euro
- 500 m ² -tik gorakoak 1.000 m ² -ra bitarte	1.094,00 euro
- 1.000 m ² -tik gorakoak	1.313,00 euro
Jarduera kaltegabeen irekiera:	600,00 euro
III. EPIGRAFEA.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN GEROKO KONTROLA, JARDUERA BAT ETXEBIZITZA BATEAN ABIARAZTEN DEN ETA SAILKATU GABEKO JARDUERA BATEAN OBRARIK EGIN GABE ALDAKETA TXIKIAK EGITEN DIREN KASUETAN	
Jarduketa bakoitzeko	6,85 euro
IV. EPIGRAFEA.- INSTALAZIO ETA LOKALAK BERRIRO IREKITZEKO BAIMENA, HALAKOAK EGIATZATU BEHAR BADIRA EGINDAKO OBRAK MUNTADUNAK DIRELAKO:	
- Jarduera sailkatuen egoitza diren lokaletarako	678,00 euro
- Jarduera kaltegabeen egoitza diren lokaletarako	678,00 euro
V. EPIGRAFEA.- KAFETEGI-TABERNARAKO LIZENTZIA BERRIRO DEFINITZEA	
- Jardueraren izena eta funtzionatzeko araubidea taberna berezi edo ikuskizunetarako kafetegi gisara jarduteko egokitze aldera berriro definitu beharreko lizentzia bakoitzeko	600,00 euro